



PAREKIDETASUNA SORTU/BULTZATUKO DUEN HEZKUNTZA SISTEMA/POLITIKA BEHAR DU EUSKAL HERRIAK ETA BEHAR DU EUSKAL EMAKUMEAK

Euskal Hezkuntza Sistema batetaz hitz egiten hasi ezker, bere osotasunean pentsatu, hausnartu eta diseinatu beharra dago.

Bereizketa gaudituko duen Euskal Hezkuntza Sistema behar dugu, eta horretarako integrala izan behar du. Hezkidetzak ere bere lekua izan behar du. Genero perspektiba txertatu beharra dago.

Hezkuntza sozializatorako oinarriko bitartekoa da eta Hezkuntza Sistema ERALDATZAILE/SORTZAILEA izan dadin, politika integrala behar dugu:

- Hezitze/prestatze/reziklatzera lagundu/ bultzatuko duena.
- HS transformaziorako/eraldakuntzarako bitartekoa bihurtzea:
 - o Sexuen arteko erlazio berriak sortzera lagunduko duena.
 - o Euskal emakumeok bizi duten eta historian zehar bizi izan dituzten gutxitze eta diskriminazioen ondorioz pairatzen duten aukera desberdintasunei aurre egingo duena: laguntza zehatzak emakume multzo espezifikoenentzat, diskriminazioek ekiditeko bitarteko hezitzaileak, lan reziklajeak...

- Politika honen helburu zehatzak honako hauek izan behar dira:

Sexu-genero sistemarekin bukatzea: modelo berriak eratuz, bizibilizazio prozesuak martxan jarritz...

- o Euskal emakumeon baldintza sozio-ekonomikoak hobetzea: lan banaketa suspertuz, enplegu formakuntza egokia bultzatuz, ofizio aukeraketa ez sexista bihurtuz...
- o Patriarkatua eta bere ondorio historikoak ezagutzera ematea. Emakumeon egoeraren bilakaera eta zapalkuntza historikoen arrazoiak agertu behar dira; emakumeen presentzia, erreferentziak, eredu anitzak eta partehartze soziala berreskuratu. Euskal emakume langileok ezaugarri bereizgarriak ditugu eta hauek ikertu eta landu behar dira.
- o Emakumeon auto-kontzientzia eta autodefentsa mekanismoak indartuz: borroka nortasuna...
- o Hauekin batera kanpaina edo errealitate batzuen aurrean helburu zehatzagoak egon daitezke:
 - Sexualitate-gorputza.
 - Indarkeriaren kontra aritzea.
 - Auto-estimua lantzea.

Honetakoz ezinbestekoa izango da politika propioa eta berri bat martxan jartzea Euskal Herrian. Politika honek gaitasun beharzailea izan behar du gaur egungo sesgo eta jardueren sexistak ekiditeko hezkuntza eremu eta estamentu guztietan.

Honen ondorioz Euskal Herriko Bilgune Feministak honako **minimoen taula** aurkezten du Hezkuntza formalean lanean dauden eragileak onartu dezaten eta sortzen ari garen Euskal Hezkuntzaren oinarrietan kontutan izan daitezen.

MINIMOEN TAULA

1.- Edukiak

Emakumeen izaera eta ekarpena berreskuratu. Emakume ereduaren presentzia bermatu.

2.- Materiala

Eduki sexista duen edozein materialaren bazterketa eta hezkidetzailen erabilera bultzatu.

3.- Hizkuntza

Hizkuntza ez sexistaren erabilera.

4.- Espazioaren antolaketa

Espazio guztiak guztiontzako.

Bereizkeria bultzatuko ez duen espazioaren antolaketa.

5.- Ikastetxearen antolaketa

Eremu zein maila ezberdinetan parekidetasunean oinarritutako emakumearen partehartzea.

6.- Jarrerak

Hezkuntza komunitatekideekiko tratu bereizkeria eza.

7.- Baloreak

Hezkidetzeta eta beraz, parekotasuna bultzatuko duten baloreen sustapena.

8.- Ebaluaketa

Sexuaren araberako aurreiritzirik gabeko ebaluazioa.

9.- Harremanak

Hezkuntza komunitate estamentuen arteko parekidetasunean oinarritutako harremanak sustatu.

10.- Jarduerak – Prozedurak – Metodologia

Hezkidetzeta bultzatu eta bermatuko duen metodologia partehartzailea.

